

Animalien ongizatea eta beganismoa: oinarrizko lexikoa



UZElren lankidetzarekin



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

animaliak abandonatze

iz. Animalien ongizatearen oinarrizko printzipioen aurkako jokabidea, konpainia-animaliak zaintzeari utzi eta babesgabe aske uztean datzana.

animalien ongizate

iz. Osasuntsu eta eroso bizitzeko beharrezko baldintzak bermatuak dituzten animalien egoera.

animalien santutegi

iz. Animalien babeslekua; zahartu eta berez hiltzen diren arte zaintzeko eramaten dira bertara konpainia-animaliak, etxe-abereak eta abar.

animalismo

iz. Animalien eskubideen aldeko mugimendua, animaliak izaki sentitzaileak direnez gizalegez tratatzea edo elikagaietarako eta esperimentuetarako ez erabiltzea defendatzen duena.

animalista

1 adj./iz. Animalien eskubideen aldekoa. 2 adj. Animalismoari dagokiona.

antiespezismo

iz. Espezismoan oinarritutako aurreiritzien eta diskriminazioaren aurkako mugimendua.

antiespezista

*1 adj./iz. Animalia-espezieen artean bereizkeriak egitearen aurkakoa, gizakiek animaliekiko ustez duten nagusitasuna arbuiatzen duena.
2 adj. Antiespezismoari dagokiona.*

antropozentrismo

iz. Teoria filosofikoa, gizakia ororen gainera jartzen eta unibertsoaren erdigunetzat hartzen duena.

barazkijale

adj./iz. Haragirik eta arrainik gabeko dieta duen pertsona.

Ik. begetariano.

beganismo

iz. Animalia-jatorriko elikagai eta kontsumo-gaiak baztertzen dituen bizimoldea.

begano

1 adj./iz. Animalia-jatorriko elikagairik gabeko dieta duen pertsona, animalietatik eratorritako produkturik erabiltzen ez duena.

2 adj. Beganismoari dagokiona.

begetarianismo

iz. Animalia-haragia baztertzen duen elikatze-modua.

begetariano

1 adj./iz. Begetarianismoaren jarraitzailea. 2 adj. Begetarianismoari dagokiona.

espezismo

iz. Animaliak diskriminatzea edo gizakiaren mesedetan ustiatzea zilegi dela defendatzen duen mundu-ikuskerara, animaliak behe-mailako espezieak diren ustean oinarritzen dena.

flexitarianismo; flexibegetarianismo

iz. Begetarianismoan oinarritutako elikatze-modua, haragia edo arraina oso noizbehinka jatea onartzen duena.

flexitariano; flexibegetariano

1 iz. Oso noizbehinka haragia edo arraina jaten duen begetarianoa.

2 adj. Flexitarianismoari dagokiona.

frugiborismo

iz. Fruta, fruitu lehorrak eta haziak jatean oinarritutako dieta beganoa.

frugiboro

1 iz. Fruta, fruitu lehorrak eta haziak jatean oinarritutako dieta beganoa duen pertsona. 2 adj./iz. Frugiborismoari dagokiona.

fruitujale

iz. Fruta, fruitu lehorrak eta haziak jatean oinarritutako dieta beganoa duen pertsona. Ik. frugiboro.

gordinjale

iz. Elikagai gordinak jatean oinarritutako dieta duena. Ik. krudiboro.

izaki sentitzaile

iz. Sentitzeko gaitasuna duen izakia, gauzatzat hartzen ez dena.

kaleko animalia

iz. Klean bizi den eta jaberik ez duen konpainia-animalia; bereziki, kale-txakurra edo kale-katua.

konpainia-animalia; maskota

iz. Pertsoneri lagun egiteko haiekin batera etxean bizi den animalia.

krudibeganismo

iz. Elikagai gordinak jatean oinarritutako dieta beganoa.

krudibegano

*1 adj./iz. Elikagai gordinak jatean oinarritutako dieta duen beganoa.
2 adj. Krudibeganismoari dagokiona.*

krudibegetarianismo

iz. Elikagai gordinak jatean oinarritutako dieta begetarianoa.

krudibegetariano

1 adj./iz. Elikagai gordinak jatean oinarritutako dieta duen begetarianoa. 2 iz. Krudibegetarianismoari dagokiona.

krudiborismo

iz. Nagusiki edo soilik elikagai gordinak (lekale ernamuinduak barne) jatean oinarritutako dieta.

krudiboro

*1 adj./iz. Elikagai gordinak jatean oinarritutako dieta duena.
2 adj. Krudiborismoari dagokiona.*

makroetxalde

iz. Abeltzaintza intentsiboko instalazioa, animalia-dentsitate handiarekin ahalik eta errentagarritasun handiena lortzeko prestatua. Ingurumenarentzat kaltegarria izatea eta animalien ongizatea ez errespetatzea leporatzen zaio makroetxaldeek ekoizpen-ereduari.

obolaktobegetarianismo; laktoobobegetarianismo

iz. Arrautzak eta esnekiak onartzen dituen dieta begetarianoa.

obolaktobegetariano; laktoobobegetariano

*1 iz./adj. Arrautzak eta esnekiak jaten dituen barazkijalea.
2 adj. Obolaktobegetarianismoari dagokiona.*



 UZEIren lankidetzarekin



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE